

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Lurzoru urbanizaezinean eraikuntza erabileren inguruko HAPOn 41. aldatzea

Herritar guztiek ezagutu eta jakinaren gainean geratzeko, Udal honetako Udalbatzarrak 2018ko urtarrilaren 29ko bileran, jarraian azaltzen den erabakia hartu zuela jakinarazten da:

“Lehena. Onartzea behin betiko Laudioko HAPOn 41. aldaketa; hori 2.5.5 eta 2.5.7 artikulak ezabatzean datza eta 1.6.5, 2.5.8., 2.5.9., 2.5.12, 2.5.14, 2.5.15, 2.5.16, 2.5.17 eta 2.5.18 artikulak berridaztean. Betiere behin behineko onarpenean lurzoru urbanizaezinean eraikuntza-erabileren erregulazioari buruzko Laudioko HAPOn aldaketa puntualaren proiektuari emandako erredakzioarekin bat.

Bigarrena. Agintzea behin betiko onarpen erabaki akordio honen kopia ziurtatua eta aipatu den behin betiko onarpen dokumentuaren udal espedientearen ale bat dabil dakion osatuta eta dilijentziazatuta, paperezko formatuan zein euskarri informatikoan, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari.

Hirugarrena. Xedatzea, halaber, behin betiko onartuta den plangintza-dokumentu hau Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzen Administrazio Erregistroan (hala euskarri informatikoan nola ohiko paperezko euskarrian) gordailuan uztea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Laugarrena. Xedatzea, halaber, behin aipatu den Erregistroan gordailuan uztearen beharra bete ondoren, argitara ematea behin betiko erabaki honen eduki osoa eta HAPOn aldatutako hirigintza arauak ALHAOn, hala nola akordio hau Araban zabalkunderik handieneko egunkariren batean, hori guztia Euskadiko Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89.5 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko”

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren 32. artikularekin bat, jakinarazten da 2016ko abenduaren 20an argitaratu zela EHAAn Ingurumen Administrazio zuzendariak 2016ko abenduaren 5ean emandako irizpenaren bidez baimendutako ingurumen-txosten estrategikoa, lurzoru urbanizaezineko eraikuntza-erabilerei buruzko araudia egokitzeke xedea duen Laudioko HAPOn aldaketa puntualari dagokiona.

Laudio, 2018ko otsailaren 26a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA

I. titulua. Izaera orokorreko arauak

IV. Kapituluua. sailkapen eta kalifikazio urbanistikoak

1.6.5. artikulua. Zona ezberdinen zerrenda

1. Hedadura ezberdineko azaleretan edota semantikoki banakatutako erreferentziako areatan banatua dago zona guztiak barne dituen udal lurraldea. Horien azalerak barne hartzen dituen zona guztien ezaugarri komuna da lurzoru-sailkapen eta erabilera nagusi bera izatea.

2. Jarraian adierazi dira hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren zonak, kasuan kasuko erabilera nagusiaren arabera.

Bizitegirako hiri-lurzorua

- Z. V.1. El Manzanal.
- Z. V.2. Larraño.
- Z. V.3. Galmaka.
- Z. V.4. Bidebarrekoa.
- Z. V.5. C/ Nafarroa.
- Z. V.6. Goienuri.
- Z. V.7. Goribiazti.
- Z. V.8. Leziaga.
- Z. V.9. Tres Cruces.
- Z. V.10. Landaluce.
- Z. V.11. Plaza de Ugarte.
- Z. V.12. Jesús Guridi.
- Z. V.13. Errotazar.
- Z. V.14. Kukullu.
- Z. V.15. Ctra. Vitoria.
- Z. V.16. Bitorika.
- Z. V.17. C/Bidebarrieta.
- Z. V.18. Río Baias.
- Z. V.19. Javier Zaballa.
- Z. V.20. Goikoetxe.
- Z. V.21. Ellakuri-Seat.
- Z. V.22. Atxarte.
- Z. V.23. Larraño-Landaluce.
- Z. V.24. Viña Vieja.
- Z. V.25. Landeta.
- Z. V.26. Centro.
- Z. V.27. (Envases) Gallarreko.
- Z. V.28. Torre Ugarte.

Z. V.29. Camino de la Estación.

Z. V.30. Lamuza.

Z. V.31. Lateorro consolidado.

Z. V.32. Lateorro sortalde.

Z. V.33. Isasi.

Z. V.34. Ellakuri.

Z. V.34bis. Lateorro V. P. P.

Z. V.34ter. Alzarrate.

Z. V.34cuar. Lamuza (V. P. P.).

Z. V.34quin. Arantzar Soloa.

Z. V.34sex. Goikoplaza.

Z. V.35. Areta.

Z. V.37. Lateorrondo.

Z. V.39. Atxeta.

Industriarako hiri-lurzorua

Z. I.1. Arlasa.

Z. I.2. Villosa consolidado.

Z. I.3. Villosa U. E.

Z. I.4. Vidrala consolidado.

Z. I.5. Vidrala U. E.

Z. I.6^a. Aceros.

Z. I.6b. Tubacex.

Z. I.12. Zumalakarregui Tres Cruces.

Z. I.7. Jez .

Z. I.8. Estación-Lip.

Z. I.9. Industrialdea.

Z. I.10. Anuntzibai.

Z. I.11. Katuja.

Z. I.12bis. Larrazabal-Renault.

Z. I.12ter. Envases.

Z. I.12cuar. Arantzar.

Z. I.13. Santa Cruz.

Lurzoru urbanizagarri programatua

Z. V.38. Gardea.

Z. I.14. Tejería.

Z. I.15. Larra.

3. Lurzoru urbanizaezinean, erreferentziako bi area nagusitan elkartu dira lurzoru mota horretako zonak, lehen sektoreko ekoizpena edo ingurumenaren babesa nagusi izatearen arabera: lehen sektoreko baliabideen ekoizpenerako zonak eta babes-zonak.

4. Hauek dira baliabideen ekoizpenerako zonak:

- Nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zona.
- Basogintzako ekoizpen-zona.
- Bizitegi-eraikina daukan nekazaritza- edo abeltzaintza-ekoizpenerako zona.

5. Hauek dira babes-zonak:

- Hidrologia babesteko zona.
- Paisaia babesteko zona.

II. titulua. Antolamendu-arau zehatzak, espezifikoa

V. Kapituluak. Lurzoru urbanizaezina

1. atala. Lurzatiari buruzko xedapenak

2.5.1. artikulua. Ez da aldatu

2.5.2. artikulua. Ez da aldatu

2.5.3. artikulua. Ez da aldatu

2.5.4. artikulua. Ez da aldatu

2.5.5. artikulua. Ezabatu egin da

2.5.6. artikulua. Ez da aldatu

2.5.7. artikulua. Ezabatu egin da

2.5.8. artikulua. Lurzoru urbanizaezinean eraikinak edo instalazioak dituzten lurzatiaren bereizketa

Lurzoru urbanizaezinean eraikin edo instalazio bat edo batzuk dituen lurzati baten hirigintza-edota nekazaritza/abeltzaintza-bereizketa egitea soilik baimenduko da baldin eta hasierako lurzatiaren azaleraren ondorioz, bertan kokatutako eraikinaren azalera eraikia hartzeko behar den gaitasuna badu; hori argitzeko, han dagoen eraikinaren edo eraikinen erabileraren edo erabileraren arabera oinarritako eraikigarritasun-koefizienteak edo -koefizienteak aplikatuko zaizkio lurzatiaren azalerari. Aurretik eraikitako eraikinari edo eraikinei dagokien euren azalera eraikia har dezakeen lurzati hartzaile bat esleitu ondoren, bereiziko den lurzatiak ezin izango du 10.000 metro karratuko azalera baino txikiagoa eduki, salbu eta bereizketaren helburu bakarra bada mugakide duen beste lurzati batekin elkartu eta adierazitako azalera bera edo handiagoa izango duen lurzati berria sortzea.

2.5.9. artikulua. Edozein eraikuntza mota bertan hartu ahal izateko, lurzati hartzaileek bete behar dituzten ibilgailuen sarbide-baldintzak

1. Lurzoru urbanizaezinean dagoen lurzati batek edozein eraikuntza mota (etxebizitza izan ala nekazaritza-eraikuntza izan) hartu ahal izateko, ibilgailuen zirkulazioa hartzeko gai den galtzada duen bide edo herri bide baten bazterrean egon beharko du, alegia, mugako izan behar du, lurzatiaren aurrealdearen 15 metro edo metro gehiago zabal dituen bide horren aurrean, eta atzealdeak gutxienez beste 15 metroko azalera eduki beharko du; horrez gain, sarbide zuzena eduki beharko du edo hori egikaritzeko aukera eman beharko du, erreferentziako bide horren jabetza- eta zaintza-eskumenak dituen erakundeak eman dion sarbide-baimenaren arabera.

2. Automobilen zirkulazioa hartzeko gai diren galtzadak dauzkaten bide berriak eraikitzeke lanak egikaritzeak ez die gaitasunik ematen bide horien bazterrean dauden lurzatiei sarbide berria egikaritzearen ondorioz inongo eraikin berririk hartzeko, erabilera publiko etengabea izan arren ere ez, baldin eta eraikitako bide berri horiek zerbitzu-bideak, norbanakoek eraikitako bideak edo administrazio publikoen beharrezan etengabe atxikitako bideak badira.

3. Araudi honen hasierako onspenaren ondoren, bide publiko ez diren eta norbanakoek eraiki dituzten bideen ustiapena hobetzeko lanak egin izanak ez die gaitasunik ematen bazterrean dauden lurzatiei sarbide berria eraikitzearen ondorioz inongo eraikuntza motarik hartu ahal izateko, salbu eta lan horiekin batera, bideari erabilera publiko iraunkorra ematen bazaio eta, gainera, plan honetan esanbidez aurreikusita badago obra horiek egikaritzea.

2.5.10. artikulua. Ez da aldatu

2.5.11. artikulua. Ez da aldatu

2. atala. Zonei buruzko xedapenak

2.5.12. artikulua. Ekoizpen-zonetarako xedapen komunak

1. Edozein urbanizazio-prozesutik kanpo geratu behar dira baliabideen ekoizpenerako zonen oinarri diren lurzoru urbanizaezinak. Horietan, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiapenekin lotutako eraikuntzei, instalazioei eta azpiegiturei dagozkien lanak baino ez dira baimenduko, araudi honetako hurrengo artikuluekin bat, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeari jarraikiz eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 28.3, 29.3 eta 30.6 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Gainera, ematen dituzten zerbitzuen izaera eta ezaugarriak aintzat hartuta, ezinbestean landa-ingurunean ezarri behar diren eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak ere baimenduko dira, betiere, baldin eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Foru Aldundian hirigintzari dagokion eskumena duen organoak aldez aurretik herri onurako edo gizarte-intereseko aitorpena eman badio.

Besteak beste, hauek daude aipatutakoen artean:

– Aurreko paragrafoan adierazi diren inguruabarrak eta baldintzak betetzen dituzten komunitateekipamenduak eta hirugarren sektoreko jarduerak.

– Zerbitzuetarako B motako instalazio tekniko ez linealak.

Oro har, instalazio puntualak, besteak beste: dorreak, irratirako estazio igorle-hartzaileak, telebista eta satelite bidezko komunikazioa nahiz antzeko eragina duten bestelako komunikazio-instalazio batzuk.

– Interes publikoko beste edozein eraikin edo instalazio, baldin eta dauzkan izaera eta ezaugarriengatik landa-ingurunean kokatu behar bada.

Hauek dira interes publikoko eraikinen hirigintza- eta eraikuntza-parametro espezifikoak:

– Hirigintza eraikigarritasuna: 0,10 metro karratu / metro karratu.

– Lotutako gutxienezko azalera: librea.

– Gehienezko okupazioa: ehuneko 10.

– Gehienezko solairu kopurua: 2 sestra-kotaren gainetik.

– Erlaitzerainoko edota teilatu hegalerainoko gehienezko altuera: 7 metro sestra-kotaren gainetik.

– Mugetarainoko tartea: 10 metro.

2.5.13. artikulua. Ez da aldatu**2.5.14. artikulua. Nekazaritza-, abeltzaintza- edota basozaintza-ustiategiei lotutako eraikin berriak**

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintzari lotutako eta bizitegi-erabilerarik ez duten eraikinak.

Baliabideen ekoizpenerako zonetan baimenduta dago nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintzari lotutako, baina bizitegi-erabilerarik ez duten eraikinak eraikitzea. Horretarako, nahitaezkoa izango da nekazaritza arloan eskumena duen Foru Sailak aldeko txostena ematea, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak 11. artikuluan xedatuta dakarrenarekin bat.

2.5.16, 2.5.17 eta 2.5.18 artikuluetan zehaztu dira eraikin horiek arautzeko eraikuntzaparametroak.

2. Nekazaritza- edota abeltzaintza-ustiapenei lotutako bizitegi-eraikinak.

Nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zonetan nahiz etxebizitza-eraikina duten nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zonetan baimenduta dago 1. eta 2. kategoriako nekazaritza edota abeltzaintza-ustiapenei lotutako etxebizitza-eraikinaren erabilera egitea.

Lizentzia eman baino lehen, nahitaezkoa izango da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 31. artikuluan eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 11. artikuluan xedatutakoa betetzea.

2.5.16 eta 2.5.18 artikuluetan zehaztu dira eraikin horiek arautuko dituzten eraikuntza-parametroak.

2.5.15. artikulua. Biztanle-gunea

Lurzoruari eta Hargintzari buruzko Legean xedatutakoaren ondoretarako, biztanle-gunea eratzeko arriskua dagoela iritziko zaio baldin eta bizitegi-eraikin bat eraikitzeko asmoa egonda, hori eraikiko balitz, 100 metroko erradioa duen zirkulu batean kokatzeko moduko oinplano-proiekzioak dituzten lau eraikin bateratzen badira.

2.5.16. artikulua. Nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zona

1. Lehenespenez nekazaritzarako, bazka-larreetarako edota abereen hazkuntzarako erabiltzen diren lurzoruak sartzen dira nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zonak.

2. Egun dauden eraikinak berreraiki edo berregiteko lanak egin ahalko dira, betiere, parametro hauek betetzen badituzte:

— Baimendutako erabilerak:

Aisialdirako erabilera edo erabilera soziala, 7., 10. eta 11. kategoriak.

Etxebizitza 1., 2. eta 5. kategorian (azken kasu horretan, 120 metro eraiki baino handiagoak izango ez diren 4 etxebizitza unitate gehienez, baina horiek ezin izango dira sortu hedapenez edo dagoen eraikinaren altuera altxatzeagatik).

— Gutxieneko azalera:

10.000 metro karratu (lurzati osagarrien eta hartzailearen guztirako eta baterako azalera gisa).

Lurzati hartzailea eraikinari lotua egongo da arau hau onesten den unean.

Lurzati osagarriek gutxienez 2.000 metro karratu eduki ahalko dituzte, baina 150 metroko erradioa duen zirkunferentzia baten barruan egon beharko dira, zirkunferentziaren erdigunea

lurzati hartzailea izanda. Lurzati hartzaileak edozein ekoizpen- edo babes-zonatakoak izan daitezke.

- Baimendutako erabilera zerbitzariak:

Gordeleku-aparkalekua, 1. kategorian.

Abereentzako eta nekazaritzako makineriarako esparruak, etxebizitzari atxikitako eraikin erantsietan, lurzati hartzailean bertan edo osagarri batean kokatuak; beraz, osagarria hartzaile ere izango da, eta harengandik 50 metro baino gutxiagora kokatutako eraikin mota honetan.

- Gainerako parametroak:

Bertan dagoen eraikinak berak emanikoak.

3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenei zuzenean lotutako eraikinetarako parametro hauek xedatu dira:

- Lotzen zaion ustiategiaren okupazioa: 0,51 ULU (urteko lan-unitate).

- Lurzati hartzailearen gutxienezko azalera: 10.000 metro karratu.

– GEOK (gehieneko eraikigarritasun- eta okupazio-koefizientea): 0,10 metro karratu/metro karratu, guztirako hirigintza azalerari aplikagarria.

– Gehienezko okupazioa: ehuneko 20, eraikin horren lurzati hartzailearen azalerari aplikagarria.

- Gehienezko altuera: solairu bat eta 5 metro gailurra jotzeko edozein puntutan.

Hala ere, eraikinerako edo bere barruan eraikitako elementuetarako altuera handiagoak baimendu ahalko dira, aldez aurretik beharrezkoa eta komenigarria dela justifikatzen bada.

- Gutxienezko tartea: mugarri-lerroetara eta bideetara 10 metro. Uraren bideetara 15 metro.

Etxebizitza eraikinetik, lurzati berean kokatua badago 6 metro, ustiategitik bananduta badago. Beste etxebizitzetara 15 metro.

– Lanabesak gordetzeko txabolak: etxebizitzatik banandutako lurzatietan kokatzen badira, gehienez ere, 12,25 metro karratu eraiki eduki ditzakete, eta, gehienez ere, solairu bakarreko altueran, teilatuko punturik altuenera 4 metro dituela.

- berotegiak: zisterna, silo eta beste antzekoak inolako muga barik.

4. Lurzoru horietan debekatuta dago basoberritzea.

5. Parametro hauek finkatu dira nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiei lotutako 1. eta 2. kategoriako etxebizitza izateko xedea duten eraikinetarako:

- Lotutako ustiategiaren okupazioa: ULU 1 udal mugartearen.

- Lurzati hartzailearen gutxienezko azalera: 10.000 metro karratu etxebizitza bakoitzeko.

- GEOK: 0,01 metro karratu/metro karratu, guztirako hirigintza azalerari aplikagarria.

- Gehienezko azalera eraikia: 240 metro karratu, etxebizitza bakoitzeko.

– Gehienezko okupazioa: ehuneko 2,4, eraikin horren lurzati hartzailearen azalerari aplikagarria.

- Hegalerainoko gehieneko altuera: 7 metro.

- Gailurrerainoko gehieneko altuera: 10 metro.

- Gehienezko solairu kopurua: soto bat, etxabe bat, lehen solairua eta estalkiaren azpikoa.

– Gutxienezko tartea: mugarri-lerroetara eta bideetara 5 metro. Beste eraikin batzuetara 6 metro.

2.5.17. artikulua. Basogintzako ekoizpen-zona

1. Basogintzako ekoizpen-zonak barne hartzen ditu basogintzarako lurzoruak, baita zuhaitz espezie desberdinekin birlandatu daitezkeen beste lurzoru batzuk ere.

2. Egun dauden eraikinak berreraiki edo berregiteko lanak egin daitezke, betiere, parametro hauek betetzen badituzte:

– Baimendutako erabilera:

Aisialdirako erabilera edo erabilera soziala, 7., 10. eta 11. kategoriak.

Etxebizitza 1., 2. eta 5. kategorian (azken kasu horretan, 120 metro eraiki baino handiagoak izango ez diren 4 etxebizitza unitate gehienez, baina horiek ezin izango dira sortu hedapenez edo dagoen eraikinaren altuera altxatzeagatik).

– Gutxienezko hirigintza-azalera: 30.000 metro karratu lurzati osagarrien eta lurzati hartzailearen guztirako azalera gisa.

Lurzati hartzailea eraikinari lotua egongo da arau hau onesten den uanean.

Lurzati osagarriek gutxienez 3.000 metro karratu eduki ahalko dituzte, baina 500 metroko erradioa duen zirkunferentzia baten barruan egon beharko dira, zirkunferentziaren erdigunea lurzati hartzailea izanda. Lurzati hartzaileak edozein ekoizpen- edo babes-zonatakoak izan daitezke.

– Baimendutako erabilera zerbitzariak:

Gordeleku-aparkalekua, 1. kategorian.

Abereentzako eta nekazaritzako makineriarako esparruak, etxebizitzari atxikitako eraikin erantsietan, lurzati hartzailean bertan edo osagarri batean kokatuak; beraz, osagarria hartzaile ere izango da, eta harengandik 50 metro baino gutxiagora kokatutako eraikin mota honetan.

– Gainerako parametroak: bertan dagoen eraikinak berak emanikoak.

3. Debekatuta daude nekazaritza-jarduerei lotutako eraikinak.

4. Lurzoru-mota horretan mozketak eta birlandatzea ere baimenduko dira, baita lurzoruok larre- edo nekazaritza-erabilerarako prestatzea ere.

2.5.18. artikulua. Bizitegi-eraikina daukan nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zona

1. Berez, nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako zonak dira, bizitegi-eraikinen multzo bat daukate eta lehenago landa-eremuen zona osagarri gisa izendatutakoekin bat datoz gaur egun ere. Parametro hauek bete behar dituzte han baimenduta dauden erabilera eta jarduerak:

– Antolamendu mota: nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenei lotutako 1. eta 2. kategoriako etxebizitza erabilerarako eraikin tradizional isolatua, gutxienezko parametro hauek beteta:

– Lotutako ustiategiaren okupazioa: ULU 1 udal mugartearen barruan.

– Lurzati hartzailearen gutxienezko azalera: 10.000 metro karratu etxebizitza bakoitzeko; baimenduta dago alde zuzenetik bertan egotea 50 urte baino gehiago daukan etxebizitza erabileradun eraikin bat.

GEOK: 0,02 metro karratu/metro karratu, eraikin berriaren guztirako hirigintza-azalerari aplikagarria. Eraikin zaharraren ez da zenbatuko aprobetxamendu horretan etxebizitza bakoitzeko 140 metro karratuko gehienezko azalera eraikiari dagokionez.

– Gehienezko azalera eraikia: 240 metro karratu etxebizitza bakoitzeko.

– Gehienezko okupazioa: ehuneko 2,4, eraikin horren lurzati hartzailearen azalerari aplikagarria. Eraikina 15 metroko karratu batean sartzeko modukoa izan beharko da.

- Hegalerainoko gehienezko altuera: 7 metro.
- Gailurrerainoko gehienezko altuera: 10 metro.
- Gehienezko solairu kopurua: soto bat, etxabe bat, lehen solairua eta estalkiaren azpikoa.
- Gutxienezko tarteak: mugarri-lerroetara eta bideetara 5 metro. Etxebizitza erabilera duen beste eraikin batera: 6 metro. Uraren bideetatik 15 metro.

2. Egun dauden eraikinak berreraiki edo berregiteko lanak egin daitezke, betiere, parametro hauek betetzen badituzte:

- Baimendutako erabilerak:
- Aisialdirako erabilera edo erabilera soziala 7., 10. eta 11. kategorian.
- Etxebizitza 1., 2. eta 5. kategorian (azken kasu horretan, 120 metro eraiki baino handiagoak izango ez diren 4 etxebizitza unitate gehienez, baina horiek ezin izango dira sortu hedapenez edo dagoen eraikinaren altuera altxatzeagatik).
- Gutxienezko hirigintza-azalera: 5.000 metro karratu (lurzati osagarrien eta hartzailearen guztirako azalera gisa).

Lurzati hartzailea eraikinari lotua egongo da arau hau onesten den unean.

Lurzati osagarriek gutxienez 2.000 metro karratu eduki ahalko dituzte, baina 250 metroko erradioa duen zirkunferentzia baten barruan egon beharko dira, zirkunferentziaren erdigunea lurzati hartzailea izanda. .

Gainerako parametroak bertan dagoen eraikinak berak emanikoak izango dira.

- Baimendutako erabilera zerbitzariak:

Gordeleku-aparkalekua, 1. kategorian.

Abereentzako eta nekazaritzako makineriarako esparruak, etxebizitzari atxikitako eraikin erantsietan, lurzati hartzailean bertan edo osagarri batean kokatuak; beraz, osagarria hartzaile ere izango da, eta harengandik 50 metro baino gutxiagora kokatutako eraikin mota honetan.

- Gainerako parametroak: egun dagoen eraikinak berak emanikoak.

3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiei zuzenean lotutako eraikinetarako, 2.5.16.3 artikuluan nekazaritza- edota abeltzaintza-ekoizpenerako jaso diren parametro berberak finkatu dira.

4. Lurzoru horietan debekatuta dago basoberritzea.

2.5.19. artikulua. Ez da aldatu

2.5.20. artikulua. Ez da aldatu